

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/98/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa eta zenbait zuzentarau indargabetzen dituena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2008/98/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 19 de noviembre de 2008, sobre los residuos y por la que se derogan determinadas Directivas» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 312/3 de 22/11/2008)

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ZUZENTARAUAK

**2008/98/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA  
2008ko azaroaren 19koa,  
hondakinei buruzkoa eta zenbait zuzentarau indargabetzen dituen  
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

(Testu egokia EEEri dagokionez)

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ikusita Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup>,

Ikusita Eskualdeetako Komitearen irizpena <sup>(2)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera <sup>(3)</sup>,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Hondakinei buruzko 2006/12/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentua eta Kontseiluarenak, 2006ko apirilaren 5ekoak <sup>(4)</sup>, Erkidegoan hondakinak manipulatzeko legegintza-esparrua ezartzen du. Bertan, oinarritzko zenbait kontzeptu definitzen dira; esate baterako, hondakinak, balorizazioa eta ezabaketa. Horrez gain, hondakinak kudeatzeko nahitaezko baldintzak ezartzen dira, honako hauek, batik bat: hondakinak kudeatzeko jarduerak egiten dituzten erakundeek edo enpresek ezinbestez izan behar dute horretarako baimena edo erregistratuta egon behar dute; hondakinak kudeatzeko planak edukitzeko betebeharra dute estatu kideek. Eta, halaber, funtsezko printzipioak ere ezartzen dira; besteak beste: ingurumenean eta osasunean ondorio negatiboak eragingo ez dituen moduan manipulatu behar dituzte hondakinak nahitaez; hondakin-hierarkia aplikatu dadin sustatu behar dute; eta «kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioari jarraiki, hondakinak ezabatzeak eragiten duen gastua hondakinen edukitzaileak edo aurreko edukitzaileak bere gain hartu behar du, edo hondakinak eragin dituen produktuaren ekoizleak.

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 22ko 1600/2002/EE Erabakiak, Ingurumenaren Alorrean Erkidegoko Seigarren Ekintza Programa ezartzekoak <sup>(5)</sup>, hondakinei buruzko legeak garatzera edo horiek ikuskatzera bultzatzen du; horrek bere baitan hartzen du argi eta garbi bereiztea hondakinak eta hondakinak ez direnak, eta hondakinak prebenitzairekin eta horiek kudeatzearekin zerikusia duten neurriak garatzea, helburuak ezartzea barne.

(3) «Hondakinak prebenitzeko eta birziklatzeko gaikako estrategia ezartze aldera» izenburupean Batzordeak 2003ko maiatzaren 23an egin zuen komunikazioak zioen beharrezkoa dela balorizazioari eta ezabatzeari buruzko uneko definizioak ebaluatzea, beharrezkoa zen birziklatzeari buruzko definizioa —orokorrean aplikatzeko— ematea, bai eta hondakin kontzeptuaren definizioari buruzko eztabaida bat egitea ere.

(4) Aipatutako komunikazioari buruzko 2004ko apirilaren 20ko ebazpenean <sup>(6)</sup>, Europako Parlamentuak honako hau eskatu zion Batzordeari: Kontseiluaren 96/61/EE Zuzentarauak, 1996ko irailaren 24koak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak <sup>(7)</sup>, hondakinen sektore guztia bere baitan har zezakeen aztertzea. Birziklatzea eta ezabatzea argi eta garbi bereizteko ere eskatu zitzaion Batzordeari, bai eta hondakinen eta hondakinak ez direnen arteko desberdintasuna argitzeko ere.

(1) C 309 EO, 2006.12.16koa, 55. or.

(2) C 229 EO, 2006.9.22koa, 1. or.

(3) Europako Parlamentuaren 2007ko ekainaren 13ko Irizpena (C 287 E EO, 2007.11.29koa, 135. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2007ko abenduaren 20koa (C 71 E EO, 2008.3.18koa, 16. or.), Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko ekainaren 17koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 20an hartutako Erabakia.

(4) L 114 EO, 2006.4.27koa, 9. or.

(5) L 242 EO, 2002.9.10ekoa, 1. or.

(6) C 104 E EO, 2004.4.30ekoa, 401. or.

(7) L 257 EO, 1996.10.10ekoa, 26. or. 2008/1/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, ordeztutako Zuzentaria (L 24 EO, 2008.1.29koa, 8. or.).

2008/98/EE Zuzentaria (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(5) 2004ko uztailaren lein emandako ondorioetan, Kontseiluak eskatu zion Batzordeari 2006/12/EE Zuzentarauak indargabetu eta ordeztutako 75/442/EEE Zuzentarauaren zenbait alderdi ikuskatzeko proposamena aurkezteko, hondakinen eta hondakin ez diren arteko desberdintasuna eta berreskuratzearen eta ezabatzearen arteko desberdintasuna argitzeko.

(6) Hondakinen alorreko edozein politikaren lehen helburua honako hau izango da: hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeak giza osasunean eta ingurumenean eragiten dituen ondorio negatiboak ahalik eta gutxienera murriztea. Hondakinen gaiari buruzko politikaren helburua, halaber, honako hau ere izango da: baliabideen erabilera murriztea, eta hondakin-hierarkiaren aplikazio praktikoa bultzatzea.

(7) Hondakinak kudeatzeko Erkidegoaren estrategiari buruzko 1997ko otsailaren 24ko Ebazpenean <sup>(1)</sup> Kontseiluak berretsi zuen hondakinak prebenitzea dela hondakinak kudeatzearen lehentasun nagusia, eta materialak berriro erabiltzea eta horiek birziklatzea lehenetsi behar dela, hondakinen energia balorizatzearen aldean, aukera ekologiko onenak diren heinean.

(8) Horrenbestez, 2006/12/EE Zuzentaruak berrikustea beharrezkoa da, helburu hauek lortzeko: oinarritzko kontzeptuak argitzeko, besteak beste, hondakinak, balorizazioa eta ezabaketa kontzeptuak; hondakinak prebenitzearen inguruan hartu beharreko neurriak indartzeko; hondakin-faseaz gain produktuen eta materialen bizitza-ziklo guztia kontuan hartuko duen ikuspegia eransteko; eta hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeak ingurumenean eragiten dituen ondorioak murrizteko ahaleginak batzeko, hondakinen balio ekonomikoari garrantzia ematen zaiola. Kontuan hartzen da, halaber, garrantzi handikoa dela hondakinak baloriza daitezen eta balorizatutako materialak erabili daitezen bultzatzea, natura-baliabideak babeste aldera. Argiago eta ulerterrazagoa izan dadin, 2006/12/EE Zuzentaruak indargabetu egin behar da, eta beste batek ordeztu behar du hura.

(9) Hondakinak kudeatzeko jarduera nagusienak Erkidegoaren ingurumen-legeek arautzen dituztenegun, zuzentaru hau egoera horretara egokitzea garrantzitsua da. Tratatuaren 174. artikuluan ingurumenari buruz xedatutako helburuetan enfasia jarriz gero, baliabideen bizitza-ziklo guztian hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeak ingurumenean eragiten dituzten ondorioei gehiago erreparatzea bultzatuko litzateke. Hortaz, zuzentaru honen oinarri juridikoa 175. artikulua izango da.

(10) Hondakinen tratamenduari buruzko erregulazio eraginkorra eta koherentea aplikatu behar zaie —salbuespen-egoera jakin batzuetan izan ezik— edukitzaileek bota dituzten eta nahitaez bota behar dituzten edo botatzeko asmoa dituzten ondasun higigarriak.

(11) Kutsatu gabe dauden lurzoru hondeatuetako hondakinak zer diren eta hondeatu ondoren han bertan erabili ez den eta bere horretan beste leku batean erabili den gainerako materiala zer den erabakitzeak, kontuan hartu behar da Zuzentaru honetan emandako hondakinari buruzko definizioa, eta azpiproduktuei buruzko xedapenak edo hondakin izateari uzteko ezarritako baldintzak.

(12) 1774/2002/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 2002ko urriaren 3koak, giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuentzat aplikagarriak diren osasun-arauak ezartzen dituenak <sup>(2)</sup>, besteak beste, zenbait kontrol proportzional ezartzen ditu animalia-azpiproduktu guztiak biltzeko, garraiatzeko, eraldatzeko, erabiltzeko eta ezabatzeko, animalia-jatorriko hondakinak barne; horrela, animalien osasunean edo gizakion osasunean arriskurik eragin ez dezaten. Horrenbestez, ezinbestekoa da erregelamendu horrekin duen lotura argitzea, arau berberak bi aldiz eman daitezten, eta animalia-azpiproduktuak zuzentaru honen aplikazio-eremutik kanpo utz daitezten, hondakinekin egindako jardueratzat hartzen ez diren erabileratarako direnean.

(13) 1774/2002/EE Erregelamendua aplikatuzetik eskuratutako eskarmentua oinarri hartuta, komeni da argitzea zein den hondakinei buruzko arauen aplikazio-eremua eta hondakin arriskutsuei buruzko xedapenena, 1774/2002/EE Erregelamenduari bidez araututako animalia-azpiproduktuak badira. Animalia-azpiproduktuek osasunean arriskurik eragin badezakete, arrisku horri aurre egiteko tresna juridiko egokia 1774/2002/EE Erregelamendua da, baina ahalegina egin behar da, hondakinei buruzko legedia aintzat hartuta, errealitate bera bi aldiz alferrik ez arautzeko.

(14) Hondakinak sailkatu behar badira hondakin arriskutsu gisa, besteak beste, produktu kimikoei buruzko Erkidegoko araudia hartu behar da oinarri; batik bat, arriskutsutzat sailkatuta dauden prestakinei buruzkoa, horretarako erabilitako kontzentrazio-mugen balioak barne. Zehaztapen zorrotzen esparruan erregulatu behar dira hondakin arriskutsuak, ahal den neurrian, kudeaketa desegoki baten ondorioz ingurumenerako eta giza osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen ondorio negatiboak prebenitzeko edo mugatzeko. Halaber, ezinbestekoa da Batzordearen 2000/532/EE Erabakiaren bidez azken aldiz ezarritako hondakin-zerrendari jarraiki <sup>(1)</sup> hondakinak eta hondakin arriskutsuak sailkatzeko erabilitako sistemari eustea, hondakinen sailkapen bateratua bultzatze aldera eta Erkidegoaren barruan hondakin arriskutsuak zer diren batera erabakiko dela bermatze aldera.

(1) C 76 EO, 1997.3.11koa, 1. or.

(2) L 273 EO, 2002.10.10ekoa, 1. or.

(1) 2000/532/EE Erabakia, 2000ko maiatzaren 3koa, 94/3/EE Erabakia ordeztzen duena eta hondakinen zerrenda bat ezartzen duena, Kontseiluaren 75/442/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluan a) idatz-zatiari jarraiki, hondakinei buruzko Zuzentaruak azken hori; Erabaki

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(15) Ezinbestekoa da bereizketa hau ezartzea: bildu bitarteko hondakinen hasierako biltegiratzea eta hondakinak biltzea eta hondakinak biltegiratzea horiek tratatu bitartean. Jardueretan hondakinak sorrarazten dituzten establezimenduak edo enpresak ez dira hondakinak kudeatzen dituzten enpresatzat hartu behar eta hondakinak jaso bitartean hondakinak biltegiratzeko baimena ez dute zertan eduki.

(16) Hondakinak hasieran biltegiratzeak, horiek jasotzeari buruzko definizioaren eremuan, esanahi hau du: hondakinak jaso bitartean instalazioetan biltegiratzea; instalazio horietan uzten dira hondakinak, gerora garraia ditzaten prestatzeko edo beste lekuren batera eramán ditzaten, han balorizatzeko edo ezabatzeko. Zuzentarau honen helburuak lortze aldera, ezinbestekoa da bereizketa hau ezartzea: bildu bitarteko hondakinen hasierako biltegiratzea eta hondakinak biltzea eta hondakinak biltegiratzea horiek tratatu bitartean; hondakin-motaren arabera, biltegiratutakoaren tamaina eta epearen arabera eta horiek biltzearen helburuaren arabera ezarri behar da bereizketa. Bereizketa hori estatu kideek berek ezarri behar dute. Balorizatu aurretik hondakinak hiru urtez edo denbora gehiagoz biltegiratzea, eta ezabatu aurretik hondakinak urtebetez edo denbora gehiagoz biltegiratzea Kontseiluaren 1999/31/EE Zuzentarauak, 1999ko apirilaren 26ak, hondakinak botatzeari buruzkoak, arautzen du <sup>(2)</sup>.

(17) Hondakinak jasotzeko sistemei dagokienez, profesionalki egiten ez direnak ez dute zertan erregistratu, arrisku txikiagoa eragiten dutelako eta hondakin horiek gaika jasotzekoak direlako. Hona hemen lehen esandakoari buruzko zenbait adibide: sendagai-hondakinak botiketarik jasotzeko sistemak, dendek kontsumo-produktuak itzultzeko sistemak eta ikastetxeetarako sistema komunitarioak.

(18) Zuzentarau honetan prebentzioa, berrerabilera, berrerabiltzeko prestatzea, tratatzeko eta birziklatzeko prestatzea zer esan nahi duten adierazi behar da, kontzeptu horien aplikazio-eremua zein den argi eta garbi gera dadin.

(19) Aldatu egin behar dira balorizatzeko eta ezabatze terminoen definizioak, bi kontzeptu horiek argi eta garbi bereizteko; horretarako, ingurumenean eragiten den ondorioari buruzko benetako desberdintasuna hartu behar da oinarri; izan ere, natura-baliabideak ordeztu egin behar dira ekonomian, eta hondakinak baliabide gisa erabiltzeak ingurumenari eta giza osasunari eragin diezazkiokeen onurak aintzat hartu behar dira. Halaber, jarraibideak egin behar dira bereizketa hori praktikan aplikatzea zaila den kasuetarako, edo jardueraren bat balorizazio gisa sailkatzen denean eta hura ekintzaren benetako ingurumen-eraginari ez dagokion kasuetarako.

(20) Zuzentarau honek, halaber, argi eta garbi adierazi behar du noiz den energetikoki eraginkorra hiri-hondakin solidoak erraustea eta noiz har daitekeen balorizazio-ekintzatat.

(21) Hondakinak itsasoetan eta ozeanoetan uztea oinarri duten ezabatze-jarduerak, hondakinak urpean uztea barne, nazioarteko hitzarmenen bidez ere erregulatzen dira; batez ere, hondakinak eta beste materia batzuk botatzeagatik itsas kutsadura prebenitzeko Konbentzioa, 1972ko azaroaren 13an Londresen erabakitakoa eta hari buruzko 1996ko protokoloa eta 2006an hura aldatu zuena.

(22) Hondakinei buruzko definizioaren alderdien artean ez da inolako nahasketarik egongo eta, beharrezkoa izanez gero, hondakinak ez diren azpiproduktuei prozedura egokiak aplikatuko zaizkie batetik, eta hondakinak izateari uzten dioten hondakinei bestetik. Hondakinei buruzko alderdi jakin batzuk zehazte aldera, hona hemen Zuzentarauak argitu beharrekoak:

— ekoizpen-prozesu baten ondorioz sortzen diren substantziak edo objektuak noiz diren azpiproduktuak eta ez hondakinak, ekoizpen-produkzio hori substantzia edo objektu horiek ekoiztera bideratzen ez denean. Substantzia bat hondakin ez delako erabakia planteamendu koordinatu baten bidez soilik erabaki daiteke; planteamendu koordinatu hori aldian-aldian eguneratu behar da, eta ingurumena eta giza osasuna babestearekin bateragarria denean baino ez da erabiliko. Ingurumenari buruzko baimen bati edo ingurumenari buruzko arau orokorreari jarraiki baimentzen bada azpiprodukturen bat erabiltzea, estatu kideek hori aintzat har dezakete eta giza osasunari edo ingurumenari kontrako ondorio globalik ez zaiola eragingo aurreikusten dutela erabakitzeke tresna gisa erabil dezakete; objektu edo substantziaren bat azpiproduktutzat hartu ahal izateko, baldintza jakin batzuk bete behar ditu. Azpiproduktuak produktuen kategoriakoak direnez, azpiproduktuak inportatu ahal izateko, produktuei dagokien erkidegoko araudian xedatutako baldintzak bete behar dira; eta

— hondakinek noiz uzten dioten hondakin izateari, hondakin izateko ezaugarriak noiz ezabatzen diren erabakitzeke irizpideak ezartzen direla eta azken ezaugarri horiek ingurumenaren babes-maila handia eta ingurumen- eta ekonomia-onurak eskaintzen dituztela; hondakin batek hondakin izateari utzi diolako erabakiari dagokionez, besteak beste, hondakin-kategoria hauetarako ezarri behar dira zehaztasunak eta irizpideak: eraikuntzetako eta eraispenetako hondakinak, zenbait errauts eta zepa, txatarra, agregakinak, pneumatikoak, ehungintzako hondakinak, konposta eta erabilitako papera eta beira; hondakinak hondakin izateari

---

hau ere ordeztzen du: 94/904/EE, Kontseiluarena, hondakin arriskutsuen zerrenda ezartzen duena, Kontseiluaren 91/89/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, hondakin arriskutsuei buruzkoa azken hori (EO L 226, 2000.9.6koa, 3. or.)

(2) L 182 EO, 1999.7.16koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

uzteko balorizazio-jarduera oso sinplea izan daiteke, esate baterako, hondakin izateari uzteko irizpideak betetzen dituen egiaztatzea.

(23) Zuzentzarauetan eta gaiari buruzko Erkidegoko gainerako arauetan ezarritako birziklatze- eta balorizazio-helburuak lortzen ari diren egiaztatze edo kalkulatzeko, Zuzentzarauek hartu behar dira kontuan: 1994ko abenduaren 20ko 94/62/EE Zuzentzarauea, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, ontzietan eta ontzi-hondakinetan buruzkoa <sup>(1)</sup>; 2000ko irailaren 18ko 2000/53/EE Zuzentzarauea, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, balio-bizitza amaitu zaien ibilgailuetan buruzkoa <sup>(2)</sup>; 2003ko urtarrilaren 27ko 2002/96/EE Zuzentzarauea, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinetan buruzkoa (RAEE) <sup>(3)</sup>; eta 2006ko irailaren 6ko 2006/66/EE Zuzentzarauea, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pilei eta metatzaileei eta pileen eta metatzaileen hondakinetan buruzkoa <sup>(4)</sup>. Izan ere, hondakin batek hondakin izateari utzi eta hondakin birziklatu eta balorizatutzat hartuko da, arau horietan xedatutako balorizazio- eta birziklatze-irizpideak betetzen dituenean.

(24) Hondakinetan buruzko definizioaren oinarriari dagokionez, ziurtasuna eta koherentzia sustatze aldera, Batzordeak jarraibideak ezar ditzake, substantziak edo objektuak hondakin noiz bihurtzen diren zehazteko zerbait kasutan. Hondakin-izaera noiz hasten den jakiteko jarraibide horiek, besteak beste, objektu hauentzat ezar daitezke: tresna elektriko eta elektronikoentzat eta ibilgailuentzat.

(25) Kostuak zenbatekoak diren azaldu behar denean, komeni da hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeko ingurumenari eragin dizkion kostuak ere adieraztea.

(26) Kutsatu duenak ordaindu behar du dioen printzipioa Europan eta nazioartean printzipio gidaria da. Hondakinak ekoiztu dituenak eta edukitzaileak kudeatuko dituz horiek, ingurumena eta giza osasuna maila handian babesten direla bermatuta.

(27) Zuzentzaraue honen bidez ekoizleari erantzukizun gehiago eranstearren arrazoia hau da: ondasunak diseinatu eta ekoiztu behar dituztenean, erabat kontuan hartzea eta sustatzea baliabideen erabilera eraginkorra haien bizitza-ziklo osoan, ondasun horien konponketa, berrerabilera, desmuntaketa eta birziklaketa barne, ondasun horien barne-merkatuko zirkulazio librea aintzat hartuta.

(28) EB «gizarte birziklatzaile» bihurtzeko behar du Zuzentzaraue honek, hondakinak ez sortzeko ahalegina egingo duena eta hondakinak baliabide gisa erabiliko dituen. Hain zuzen ere, Ingurumenaren alorreko Europako Erkidegoaren Seigarren Ekintza Programak, lehenetsutako hondakin-fluxuen kasuan, iturrien bereizketa, bilketa eta birziklatzea ziurtatzera bideratutako neurriak ezarri behar direla agintzen du. Helburu horren arabera, eta balorizatzeko aukera gehiago sortze aldera eta horiek hobetze aldera, hondakinak gaika bilduko dira beti, teknikaren, ingurumenaren eta ekonomia-eragile bideragarria bada betiere, ingurumenari eragin global onena eragingo dion balorizazio-ekintzei ekin baino lehen. Estatu kideek, beharrezkotzat hartzen badute, konposatu arriskutsuak eta hondakin-fluxu guztiak bereiztea sustatuko dute, ingurumenaren kudeaketa egokia izan dadin.

(29) Estatu kideek birziklatuen erabilera bultzatu behar dute (paper birziklatua, esaterako), hondakin-hierarkiari jarraiki eta gizarte birziklatzailea lortzeko helburuari jarraiki; horrezaz gain, birziklatu horiek botatzea edo erraustea ez dute bultzatu behar, ahal den guztietan.

(30) Tratatuaren 174. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako arreta-printzipioa eta prebentziozko ekintza-printzipioa aplikatzeko, nahitaezkoa da ingurumenari buruzko helburu orokorrak ezartzea Erkidegoan hondakinak kudeatzeko. Printzipio horien arabera, Erkidegoari eta estatu kideei dagokie kutsadura-iturriak edo enbarazu eragiten dutenak hasieratik prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, ezabatze esparrua ezartzea; horretarako, nabarmenak diren arriskuak ezabatze neurriak ezarri behar dira.

(31) Hondakin-hierarkiak, oro har, hondakinen alorreko araudian eta politikan ingurumenarentzat aukera global hobereen lehentasun-ordena ezartzen du; dena dela, hondakin-fluxu jakin batzuen kasuan, beharrezkoa izan daiteke hierarkia hori kontuan ez hartzea, baldin eta justifikatuta badaiteke; besteak beste, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, eta ingurumena babesten bada.

(32) Erkidegoa, osotasunean, etxebizitza pribatuetatik jasotako hondakinak ezabatzen eta hiri-hondakin nahasiak balorizatzen burujabea izan ahal izateko, eta norbere kabuz bide horretan aurrera egin dezaten estatu kideek, ezinbestekoa da etxebizitza pribatuetatik jasotako hiri-hondakin nahasiak ezabatze instalazioetan eta horiek balorizatzeko instalazioetan lankidetzarako sare bat xedatzea; horretarako, kontuan hartu behar dira ezaugarri geografikoak eta hondakin-motaren arabera instalazio espezializatuak edukitzea.

---

(1) L 365 EO, 1994.12.31koa, 1. or. 10.

(2) L 269 EO, 2000.10.21koa, 34. or.

(3) L 37 EO, 2003.2.13koa, 24. or.

(4) L 266 EO, 2006.9.26koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(33) 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006/EE Erregelamendua betearazteko, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>, hiri-hondakin nahasiek —Erregelamendu horren 3. artikulua 5. paragrafoan adierazitakoak— izaera horri eutsiko diote, nahiz eta horien ezaugarriak nabarmen aldatu ez dituzten tratamendu-jardueraren bat egin.

(34) Oso garrantzitsua da hondakin arriskutsuak etiketatzea Erkidegoko eta nazioarteko arauei jarraiki. Hala ere, etxeetatik bereizita jasotzen badira hondakin horiek, familiak ez lirateke zertan behartu eskatzen den dokumentazioa betetzera.

(35) Hondakin-hierarkiarekin bat etorriz eta negutegi-efektuko gasen emisioa murrizte aldera —hondakinak zabortegietan ezabatzeak eragindakoak— oso garrantzitsua da biohondakinak bereizita jasotzeko erraztasunak ematea eta horiek behar bezala tratatzea. Izan ere, horrela, ingurumenarentzat segurua den konposta ekoizteko, bai eta biohondakinetan oinarritutako beste material batzuk ekoizteko ere. Batzordeak, biohondakinaren kudeaketaren azterketa egin ondoren, lege-neurrien proposamenak aurkeztuko ditu, hala irizten badio.

(36) 96/61/EE Zuzentarauak bere baitan hartzen ez dituen tratamendu-jarduerari buruzko gutxienezko arau teknikoak ezarri ahal izango dira, baldin eta egiazta badaiteke horien bidez osasuna eta ingurumena babestearen inguruan onurak eragiten direla eta, halaber, Zuzentaru hau aplikatzeko ikuspegi koordinatuak osasuna eta ingurumena babesten dela bermatzen badu.

(37) Ezinbestekoa da zehaztea hondakinak kudeatzeko planak ezartzeko betebeharra norainokoa den eta zer edukiri buruzkoa den; horrez gain, ezinbestekoa ere bada hondakinak kudeatzeko planak garatzeko edo berrikusteko prozesuetan, hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeko ingurumenean eragiten dituen ondorioak kontuan izatea. Horiez gain, eta egoki irizten bada, hauek ere kontuan hartu beharrekoak dira: 94/62/EE Zuzentarauaren 14. artikuluan xedatutako planifikazio-baldintzak hondakinaren kudeaketaren inguruan, eta 1999/31/EE Zuzentarauaren 5. artikuluan adierazitakoa; hau da, zabortegietara bideratzen diren hondakin biodegradagarriak murrizteko estrategia.

(38) Estatu kideek ingurumen-baimen edo ingurumen-arau orokorrak erantsi ahal izango dituzte hondakin jakin batzuk ekoizten dituztenentzat, baldin eta barne-merkatuaren funtzionamendu egokiari kalterik egiten ez bazaio.

(39) 1013/2006/EE Erregelamenduaren arabera, estatu kideek beharrezkotzat hartzen dituzten neurriak ezarri ahal izango dituzte, hondakinak kudeatzeko planetara egokitzen ez diren hondakinak lekuz aldatzea eragozteko. Erregelamendu horretan xedatutakoa gorabehera, estatu kideei baimena eman behar zaie balorizatzeko modukotzat sailkatutako eta erraustegietara bideratutako hondakinaren lekualdatzea mugatzeko, estatuko hondakin horiek ezabatu egin behar direla erabakitzen badute, edo hondakin horiek hondakinak kudeatzeko dituzten planekiko modu ez-bateragarrian tratatu behar direla erabakitzen badute. Kontuan hartzen da, litekeena dela zenbait estatu kidek ez izatea beren lurraldean azken balorizaziorako instalazio guztiak barne hartzen dituen sarea.

(40) Estatu kideetan hondakinak prebenitzeari buruz gauzatzen dituzten jarduerak hobetze aldera eta alor horretako jardunbide onenak elkarri trukitzea sustatze aldera, ezinbestekoa da hondakinak kudeatzeari buruzko xedapenak bultzatzea eta hondakinak prebenitzeko programak prestatzeko betebeharra ezartzea estatu kideei, ingurumen-ondorio nagusiei bereziki erreparatzen dietela eta produktuen eta materialen bizi-ziklo osoa kontuan hartzen dutela. Hona hemen neurri horiek izan behar duten helburua: ekonomia hazkundera eta hondakinaren sorrera elkarrengandik bereiztea. Interesa duten guztiak, eta herritar guztiak oro har, aukera izan behar dute programa horiek egiten parte hartzeko eta, horiek egin ondoren, eskuratu ahal izateko. Izan ere, hala ezarrita dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/35/EE Zuzentaruaren, 2003ko maiatzaren 26koa bera, eta ingurumenarekin zerikusia duten zenbait plan eta programa egiteko herritarrek parte har dezaten neurriak ezartzen dituen <sup>(1)</sup>. Hondakinak prebenitzeari eta bereizteari alorrean helburuak ezarri behar dira, beren baitan hartzen dela, behar bezala, hondakinaren ondorio kaltegarrien murrizketa eta sorrarazten den hondakin-kopuruaren murrizketa.

(41) Europar gizarte birziklatzailea lortzeko bidean aurrera egin dadin —baliabideen eraginkortasun-maila handia lortzen dela—, hondakinak berrerabil eta birzikla daitezkeen prestatzeko helburuak ezarri behar dira. Estatu kide guztiak ez dituzte ikuspuntu berdinak etxeko hondakinak jasotzearen inguruan, ez eta antzeko izaera eta konposizioko hondakinaren inguruan ere. Horrenbestez, komeni da helburu horiek ezartzerakoan kontuan hartzea estatu kideek ez dituztela hondakinak jasotzeko sistema berdinak. Bestelako jatorriko hondakin-fluxuek, etxeko hondakinaren antzekoek, Batzordearen 2000/532/EE Erabakiaren bidez ezarritako zerrendaren 20. puntuan adierazten diren hondakinak barne hartzen dituzte.

(42) Bitarteko ekonomikoek berebiziko garrantzia izan dezakete hondakinaren kudeaketaren eta prebentzioaren inguruko helburuak lortze aldera. Hondakinek, askotan, balioa badute baliabide gisa; beraz, baliabide ekonomiko gehiago aplikatuz gero, ingurumenarekiko onurak maximizatu daitezke. Horrenbestez, baliabide ekonomiko horiek maila egokian erabiltzea sustatu behar da; horrez gain, argitu nahi da, estatu kideek, nor bere aldetik, horien erabilerrari buruz erabaki dezaketela.

---

(1) L 190 EO, 2006.7.12koa, 1. or.

(i) L 156 EO, 2003.6.25koa, 17. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(43) Hondakinen manipulazioari buruzko zenbait xedapen —Kontseiluaren 91/689/EEE Zuzentarauan ezarritakoak, 1991eko abenduaren 12koa bera, eta hondakin arriskutsuei buruzkoa <sup>(2)</sup>— aldatu egin behar dira, zaharkituta geratu diren zenbait alderdi ezabatzeke eta testuaren kalitatea hobetzeko. Erkidegoko legedia sinplifikatze aldera, xedapen horiek Zuzentarau honetan erantsi behar dira. 91/689/EEE Zuzentarauan jasotako nahasketak egiteko debekuaren aplikazioari buruzko argibideak emate aldera eta ingurumena eta giza osasuna babeste aldera, nahasketa-debekuaren inguruko salbuespenek, halaber, 96/61/EE Zuzentarauan definitutako teknika onenen baldintzak —eskuragarri daudenak— bete behar dituzte. Indargabetu egin behar da, hortaz, 91/689/EEE Zuzentaraua.

(44) Erkidegoko legedia sinplifikatze aldera, eta ingurumen-onurak adierazte aldera, erabilitako olioiei buruzko Kontseiluaren 1975eko ekainaren 16ko 75/439/EEE Zuzentarauan <sup>(3)</sup> jasota dauden xedapen egokiak Zuzentarau honetan erantsi behar dira. Hortaz, indargabetu egin behar da 75/439/EEE Zuzentaraua. Erabilitako olioak hondakin-hierarkian ezarritako lehenetsun-ordenaren arabera kudeatu behar dira, eta ingurumenari orokorrean emaitza onenak eragiten dizkion aukerei lehenetsuna eman behar zaie. Erabilitako olioak berezita jasotzeak berebiziko garrantzia du oraindik ere, horiek behar bezala kudeatzeko eta gaizki ezabatzeagatik ingurumenari eragiten zaizkion kalteak prebenitzeko.

(45) Hondakinak kudeatzeaz arduratzen diren pertsona fisiko zein juridikoei isun eraginkorrak, proportzionalak eta disuasiozkoak jartzeko moduak xedatu behar dituzte estatu kideek; esate baterako honako hauei jarri ahal izateko: ekoizleei, edukitzaileei, negoziatzaileei, agentei, garraioari eta biltzeaz arduratzen direnei, establezimenduei eta enpresei (hondakinak tratatzeko ekintzak eta hondakinak kudeatzeko sistemak gauzatzen dituztenei), baldin eta Zuzentarau honetako xedapenak urratzen dituzten ekintzak eta sistemak gauzatzen badituzte. Xedapenak ez betetzeak eta hondatutakoa lehenera ekartzeko eragiten dituen kostuak berreskuratzeko neurriak ere hartu ahal izango dituzte estatu kideek, ingurumenarekiko kalteak prebenitzeko eta lehenera ekartzeko dagokionez ingurumen-erantzukizunari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/35/EE Zuzentaruaren kalterik gabe <sup>(4)</sup>.

(46) 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian ezarritakoaren arabera onartuko dira Zuzentarau hau betetzeko behar diren neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak beteazteko <sup>(5)</sup>.

(47) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea hainbat alderdiri buruzko irizpideak eman ditzan; esate baterako, honako alderdi hauen ingurukoak: objektu batek, azpiproduktutzat hartzeko, bete behar dituen baldintzak; hondakin izateri uzteko betebeharreko ezaugarriak; hondakin batek, hondakin arriskutsutzat hartzeko, bete behar dituen ezaugarriak; eta irizpideak emateaz gain, Zuzentarau honetan ezarri diren birziklatze-helburuak betetzeko zenbait arau zehatz ezar ditzan eta horiek betetzen direla ziurtatzeko kalkulu-metodoak ezar ditzan. Komeni da, halaber, Batzordeari eskumenak ematea aurrerapen teknikoaren eta zientifikoaren arabera eranskinak egoki ditzan eta II. eranskineko R1 puntuan adierazitako errausketa-instalazioentzako formula nola aplikatu behar den zehatz dezan. Neurri horiek orokorrak eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz), 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(48) «Lege hobeak egitea» da Erakunde arteko Akordioaren 34. puntuan ezarritakoa <sup>(6)</sup>; horren arabera, estatu kideak bultzatu egin behar dira, beren onerako zein Erkidegoaren onerako, nor bere taulak egin ditzan, horien bidez, ahal den neurrian, Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien artean dauden loturak adierazteko eta, ondoren, argitara emateko.

(49) Zuzentarau honen helburua zein den kontuan hartuta —ingurumena eta giza osasuna babestea— estatu kideek ezin dute behar bezala bete helburu hori, eta, beraz, Zuzentarau honen norainokoa eta ondorioak direla eta, hobeto lor daiteke Erkidego-mailan; horrenbestez, Erkidegoak neurriak hartzeko aukera izango du, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Aipatu dugun artikulua horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Zuzentarau honek ez ditu helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### I. KAPITULUA

#### **XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

##### *1. artikulua*

---

(2) L 377 EO, 1991.12.31koa, 20. or.

(3) L 194 EO, 1975.7.25koa, 23. or.

(4) L 143 EO, 2004.4.30koa, 56. or.

(5) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

(6) C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### **Helburua eta aplikazio-eremua**

Zuzentarau honek ingurumena eta giza osasuna babesteko neurriak ezartzen ditu; hala, hondakinen sorrerak eta kudeaketak eragiten dituen eragin negatiboak prebenitzera edo murriztera bideratutako neurriak ezartzen ditu eta, beraz, baliabideak erabiltzeak dakartzan eragin globalak murrizten lagunduko du, bai eta erabilera horren eraginkortasuna hobetzen ere.

#### *2. artikulua*

### **Aplikazio-eremutik kanpokoak**

1. Hona hemen Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dena:

- a) atmosferara igortzen diren gas-efluenteak;
- b) lurra, (*in situ*) hondeatu gabeko lur kutsatua barne, bai eta beti lurra ukitzen duten eraikinak ere.
- c) kutsatu gabeko lurra eta eraikuntza-jardueretan hondeatu eta berezko eran dagoen gainerako materiala, berriz ere hondeatu zen lekuan bere horretan erabiliko dela —eraikuntzarako— material hori ziurtasun osoz badakigu, betiere.
- d) hondakin erradiaktiboak;
- e) sailkapenetik kanpoko lehergaiak;
- f) materia fekalak, 2.b) paragrafoan xedatuta ez badaude; lastoa eta bestelako material naturala, nekazaritzakoa zein basogintzakoa, nekazaritzan bai basogintzan erabilia edo biomasa hori oinarri hartuta energia egiteko erabilia, ingurumenari kalteak eragiten ez dizkion eta giza osasuna arriskuan jartzen ez duen prozeduren edo metodoen bitartez.

2. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira, Erkidegoko beste araudi baten bidez araututa daudelako:

- a) hondakin-urak;
- b) animalia-azpiproduktuak, eta 1774/2002 Erregelamenduak bere baitan hartzen dituen produktu eraldatuak barne; honako hauek salbu: errausteko eta zabortegetarako direnak eta gas-planta edo konpostaje-plantaren batean erabilitakoak.
- c) gizakiek hil gabe, beste moduren batean hildako animalien gorpuzkiak, epizootia gaixotasuna erazteko akabatu diren animaliak barne, 1774/2002 Erregelamenduaren arabera baztertuta daudenak;
- d) baliabide mineralen prospekzio-, erauzketa-, tratamendu- eta bilketa-lanek eragindako hondakinak, baita harrobiak ustiatzetik sortutako hondakinak ere, erauzketa-industriako hondakinak kudeatzeri buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko martxoaren 15eko 2006/21/EE Zuzentarauak <sup>(1)</sup> hartzen baititu bere baitan.

3. Erkidegoan badira beste araudi aplikagarriak jarraiki ezarritako betebeharrak; nolana ere, Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira azaleko uren azpian berriz kokatutako jalkinak, urak eta bide nabigarriak kudeatzeko badira, uholdeak eta lehorteak prebenitu edo uholdeen eta lehorteen eraginak arintzeko badira, lurzorua lehenera ekarri behar badira, baldin eta frogatzen bada jalkin horiek ez direla arriskutsuak.

4. Berariazko xedapen bereziak edo Zuzentarau honen osagarriak, zenbait hondakin-kategoriaren kudeaketa arautzeko emanak, berariazko zuzentzauren bidez ezarri ahal izango dira.

#### *3. artikulua*

### **Definizioak**

Zuzentarau honetan, hitz hauek definizio hau dute:

- 1) «hondakina»: edozein substantzia edo objektu, eta edukizailak bota duena, botatzeko asmoa duena edo nahitaez bota behar duena;

---

(1) L 102 EO, 2006.4.11koa, 15. or.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- 2) «hondakin arriskutsua»: III. eranskinean zerrendatzen diren ezaugarri arriskutsu bat edo batzuk betetzen dituen hondakina;
- 3) «erabilitako olioak»: olio mineral edo sintetiko guztiak, industria-olio edo lubrifikatze olio guztiak, jatorriz aurreikusten zaien erabilerarako dagoeneko balio ez dutenak; esate baterako: errektuntza-motorretan erabilitako olioak, abiadura-kaxako olioak, olio lubrifikatzaileak, turbinetako olioak eta olio hidraulikoak;
- 4) «biohondakina»: lorategi eta parkeetako hondakin biodegradagarriak, janari-hondakinak eta etxeetako sukaldeetako hondakinak, jate-zerbitzuak, jate-zerbitzu komunitarioetakoak eta txikizkako kontsumo-establezimenduetakoak, eta elikagaiak eraldatzeko lantegietako hondakin alderagarriak;
- 5) «hondakin-ekoizlea»: hondakinak ekoizten dituen edozein pertsona (lehen ekoizlea) edota aldez aurretik tratamenduren bat, nahasketa edo bestelakoren bat egin eta hondakinen osieran edo berezkitasunean aldatzeko eragiten duen pertsona oro;
- 6) «hondakin-erabiltzailea»: hondakinak ekoizten dituen, edo hondakinak berekin dituen pertsona fisikoa edo juridikoa;
- 7) «negoziatzailea»: bere kabuz hondakinak erosi eta gero saldu egiten duen enpresa oro, hondakinak fisikoki berekin edukitzen ez dituzten negoziatzaileak barne;
- 8) «agentea»: beste norbaitek eskatuta, hondakinak balorizatzen edo ezabatzen dituen enpresa oro, hondakinak fisikoki berekin edukitzen ez dituzten agenteak barne;
- 9) «hondakin-kudeaketa»: hondakinak biltzea, garraiatzea, balorizatzea eta ezabatzea, bai eta lan horiek nola egiten diren zaintzea eta, itxi ondoren, deskarga-lekuak zaintzea ere, negoziatzaile- edota agente-lanei dagozkien jarduerak barne.
- 10) «bilketa»: hondakinak biltzea, horiek sailkatzea edota denbora batez pilatzea, gero hondakinak tratatzeko instalazioren batera garraiatzeko;
- 11) «gaikako bilketa»: hondakin-fluxuak gaika biltzea, hondakin-motaren eta -izaeraren arabera, berariaz tratatzea errazagoa izan dadin;
- 12) «prebentzioa»: substantzia, material edo produkturen bat hondakin bihurtu aurretik ezarritako neurriak, honako hauek murrizteko:
  - a) hondakin-kopurua, produktuak berriro erabilia edota produktuen bizitza erabilgarria luzatuta barne.
  - b) hondakinen sorrera dela eta, ingurumenarekiko edo giza osasunarekiko eragin kaltegarriak, edota
  - c) materialetako edo produktuetako substantzia kaltegarrien kopurua;
- 13) «berrerabilera»: hondakin ez diren produktuak edo osagaiak jatorrian zuten xedearekin berriro ere erabili ahal izateko edozein jarduera;
- 14) «tratamendua»: balorizatze edo ezabatze jarduerak, balorizatu eta ezabatu ahal izateko aurretiazko prestatze-lana barne;
- 15) «balorizazioa»: helburu nagusia hondakina erabilgarri egitea duen edozein jarduera, berezko funtzioa betetzeko erabiliko genituzkeen beste material batzuk ordeztzeko; edo hondakina funtzio horretarako propio prestatzea, instalazioan edo ekonomian oro har. II. eranskinean balorizazio-lanen zerrenda aipatzen da, baina zerrenda irekia da;
- 16) «berrerabiltzeko prestatzea»: egiaztatzean, garbitzean edo konpontzean datza balorizazio-jarduera; hala, hondakin bilakatu diren produktuak edo produktuen osagaiak berriro erabiltzeko prestatzen dira, aurretik beste inolako eraldaketarik egin gabe;
- 17) «birziklatzea»: balorizazio-jarduera oro, hondakin-materialak berriro ere produktu, material edo substantzia bilakatzeko, jatorrian zuen erabilera izan dezan edo beste erabileraren bat izan dezan. Material organikoa eraldatzea ere barne, baina ez da birziklatzearen definizioaren barne sartzen balorizazio energetikoa, ez eta erregaitzat edo betelanak egiteko erabiliko diren material bihurtzea ere.
- 18) «erabilitako olioak balioztatzea»: birziklatze-jarduera oro, oinarrizko olioak produzitzea xede duena, erabilitako olioak finduta eta, bereziki, olio horien kutsatzaileak, oxidazio-produktuak eta gehigarriak kenduta;
- 19) «ezabatzea»: balorizazioa ez den beste edozein jarduera, nahiz eta jarduera horrek eragindako bigarren mailako ondorioa substantziak edo energia aprobetxatzea izan. II. eranskinean ezabatze-lanen zerrenda aipatzen da, baina zerrenda irekia da;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

20) «teknika eskuragarri onenak»: eskuragarri dauden teknika onenak, 91/61/EE Zuzentarauaren 2. artikuluko 11. paragrafoan definitzen diren moduan.

### *4. artikulua*

#### **Hondakin-hierarkia**

1. Jarraian, hondakinak kudeatzeko hierarkia adierazten da, eta hori izango da hondakinak prebenitzeari eta kudeatzeri buruzko legediaren eta politikaren lehentasunezko ordena:

- a) prebentzioa;
- b) berrerabiltzeko prestatzea;
- c) birziklatzea;
- d) beste balorizazio-mota bat, balorizazio energetikoa, esate baterako; eta
- e) ezabatzea.

2. 1. paragrafoan adierazitako hondakinak kudeatzeko hierarkia aplikatzerakoan, estatu kideek ingurumenean ondorio global onena eragingo duten aukerak bultzatzeko neurriak ezarriko dituzte. Zenbait hondakin-fluxuk hierarkia hori kontuan ez hartzea ekar dezake, baina hondakin horiek berreskuratzeak eta kudeatzeak eragiten dituen ondorio globalekiko bizi-zikloaren ikuspegia oinarri hartuta justifikatu beharko da.

Hondakinei buruzko legedia eta politika erabat gardenak direla bermatuko dute estatu kideek eta, horien bidez, herritarrek eta interesa duten alderdiek kontsultatzeko eta parte hartzeko dituzten eskubideei buruzko arauak bermatuko dituzte estatu kideek, nork bere estatukoak.

Estatu kideek zuhurtzia- eta jasagarritasun-printzipio orokorrak kontuan izango dituzte, besteak beste, ingurumen-babesaren alorrean, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren alorrean eta baliabideen babesean; horrezaz gain, ingurumenari eta giza osasunari eragiten zaizkion ondorio guztiak, ondorio ekonomiko eta sozial guztiak ere kontuan hartuko dituzte, 1. eta 13. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

### *5. artikulua*

#### **Azpiproduktuak**

1. Produkzio-prozesu baten ondorioz lortzen den substantzia edo objektua —prozesu horren lehen helburua substantzia edo objektu hori produzitzea ez bada— azpiproduktutzat har daiteke eta ez hondakintzat (3. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera), bakar-bakarrik baldintza hauek betetzen baditu:

- a) erabili egingo da substantzia edo objektua, zalantzarik gabe;
- b) substantzia edo objektua zuzenean erabil daiteke, ohiko industria-jarduera ez den beste eraldaketarik egin gabe;
- c) substantzia edo objektua produkzio-prozesu baten produktuarekin batera lortu da; eta
- d) gerora duen erabilera legezkoa da; hau da, produktuei eta ingurumenaren eta osasunaren babesari aplikatzen zaizkien eta dagozkien baldintza guztiak betetzen ditu substantziak edo objektuak; eta ingurumenari edo giza osasunari ondorio kaltegarriak ez dizkio eragiten.

2. 1. paragrafoan xedatutako baldintzak oinarri hartuta, substantzia edo objektu espezifikoak azpiproduktuak direla eta hondakinak ez direla esateko substantzia edo objektu horiek bete behar dituen irizpideak zein diren ezartzeko neurriak hartu ahal izango dira, 3. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentarua bera ere osatuz), 39. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

### *6. artikulua*

#### **Hondakin izateari utzi**

2008/98/EE Zuzentarua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Zenbait hondakin espezifiko hondakin izateari utziko diote —3. artikuluan, 1. paragrafoan adierazitako definizioarekin bat etorritik— jardueraren bat egin bada harekin, birziklatze- eta balorizazio-jarduera barne, eta zenbait irizpide jakin betetzen baditu; irizpide horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) substantzia edo objektua, normalean, helburu jakinetarako erabiltzen da;

b) badago substantzia edo objektu horrentzako merkaturia edo eskaria;

c) substantziak edo objektuak betetzen ditu helburu jakin horietarako nahitaezkoak diren baldintzak, eta indarrean dagoen araudia eta produktuei aplikatzen zaizkien arauak betetzen ditu; eta

d) substantzia edo objektu horren erabilerak ez ditu ondorio kaltegarri globalak eragingo ingurumenean eta osasunean.

Irizpide horiek muga-balioak ere hartuko dituzte beren baitan substantzia kutsatzaileen kasuan, beharrezkoa izanez gero, eta substantzia edo objektu horrek ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarri guztiak ere hartuko dituzte kontuan.

2. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz), 1. paragrafoan ezarritako irizpideak ezartzeari buruzkoak eta irizpide horiek aplikatuko zaizkien hondakin-motak zehaztekoak, 39. artikuluan 2. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Hondakin batek hondakin izateari uzteko betebeharreko irizpide horiek, besteak beste, honako hauek hartuko dira kontuan: agregakinentzat, paperarentzat, beirarentzat, metalarentzat, pneumatikoentzat eta ehungintzako hondakinentzat.

3. Hondakin batek 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera hondakin izateari uzten badiu, hondakin izateari utziko dio, halaber, 96/62/EE, 2000/53/EE eta 2006/66/EE Zuzentarauetan eta Erkidegoko gainerako arauetan xedatutako balorizazio- eta birziklatze-helburuetarako, baldin eta arau horietan guztietan xedatutako balorizazio- eta birziklatze-irizpideak betetzen badira.

4. Erkidegoan ez badira irizpideak zehazten 1. eta 2. paragrafoetan xedatutako prozeduraren arabera, estatu kideek kasu kasu erabaki ahal izango dute hondakin jakin batek hondakin izateari utzi dion, aplika daitekeen jurisprudentzia kontuan hartuta. Erabaki horiek Batzordeari jakinaraziko dizkiote, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentarauak, 1998ko ekainaren 22koak, arau eta erregelamendu teknikoaren eta informazio-gizartearen zerbitzuei buruzko arauen berri emateko prozedura ezartzen duenak<sup>(1)</sup>, xedatutakoarekin bat etorritik, hala dela dioenean Zuzentarau horrek.

### *7. artikulua*

#### **Hondakin-zerrenda**

1. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek, 2000/532/EE Erabakian xedatutako hondakin-zerrenda eguneratzeari buruzkoak, 39. artikuluan 2. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Zerrenda horrek bere baitan hartuko ditu hondakin arriskutsuak, eta hondakinen jatorria eta konposizioa kontuan hartuko ditu eta, beharrezkoa izanez gero, substantzia arriskutsuen kontzentrazioaren muga-balioak. Hondakin-zerrendak lotura-indarra izango du hondakinak hondakin arriskutsutzat hartu behar diren erabakitzeko. Substantzia edo objektua zerrendan aipatzeak ez du esan nahi hondakintzat hartu behar denik egoera guztietan. Substantzia edo objektu bat hondakintzat hartuko da, bakar-bakarrik, 3. artikuluko 1. paragrafoan ematen den definizioarekin bat badator.

2. Edozein estatu kide erabaki dezake hondakin bat hondakin arriskutsua dela III. eranskinean aipatzen diren ezaugarri bat edo gehiago betetzen baditu, nahiz eta arriskutsutzat ez hartu hondakin-zerrendan. Halakorik gertatuz gero, estatu kideak kasu horiek jakinaraziko dizkio Batzordeari lehenbailehen. 37. artikuluan 1. paragrafoan adierazten den txostenean erregistratuko ditu, eta egoki irizten dion informazio guztia aurkeztuko dio. Jasotako jakinarazpenak oinarri hartuta, zerrenda berrikusiko da aldaketarik egin behar den erabakitzeko.

3. Estatu kide batek egiaztatzen badu zerrendan arriskutsutzat hartzen den hondakin jakin batek ez duela III. eranskinean aipatzen diren ezaugarrietako bakar bat ere betetzen, hondakin ez-arriskutsutzat har dezake. Halakorik gertatuz gero, estatu kideak kasu horiek jakinaraziko dizkio Batzordeari lehenbailehen, eta beharrezkoak diren datu guztiak aurkeztuko dizkio. Jasotako jakinarazpenak oinarri hartuta, zerrenda berrikusiko da aldaketarik egin behar den erabakitzeko.

4. Hondakin arriskutsuak ez dira hondakin ez-arriskutsuen zerrendan berriro sailkatuko, diluzio edo nahasketa bat egin ondoren, baldin eta diluzio eta nahasketa horien helburua substantzia arriskutsuei dagozkien hasierako kontzentrazioak murriztea bada eta, hala, horien kontzentrazio-maila arriskutsutzat hartzeko behar den mugatik behera ezarri.

---

(1) L 204 EO, 1998.7.21ekoa, 37. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

5. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek —zerrenda berrikusteari buruzkoak eta, horrela, 2. eta 3. paragrafoekin bat etorrita hura aldatu behar den erabakitzeko ezarri beharreko neurriak— 39. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

6. Estatu kideek hondakin bat hondakin ez-arriskutsutzat har dezakete, 1. paragrafoan adierazitako zerrendari jarraiki.

7. Batzordeak bermatu egingo du hondakin-zerrendak eta zerrenda horren inguruan egindako berrikusketa guztiek behar bezala errespetatuko dituztela argitasun- eta ulergarritasun-printzipioak eta horiek eskura izango dituztela erabiltzaileek eta, batez ere, enpresa txiki eta ertainek (ETE).

### II. KAPITULUA

#### BALDINTZA OROKORRAK

##### 8. artikulua

#### **Ekoizlearen erantzukizun erantsia**

1. Hondakinen berrerabilera, prebentzioa, horien birziklaketa eta balorizazioa hobe izan dadin, estatu kideek legezko edo ez-legezko neurriak ezarri ahal izango dituzte, modu profesionalean produktuak garatzen, egiten, prozesatzen, tratatzen, saltzen edota inportatzen aritzen diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek (produktuaren ekoizlea) erantzukizun gehiago izan ditzaten bermatzeko. Neurri horiek, besteak beste, honako hauek har ditzakete beren baitan: bueltatzen diren produktuak eta produktu horiek erabili ostean geratzen diren hondakinak onartzea, bai eta hondakin horien ondorengo kudeaketa eta jarduera horiei dagozkien finantza-erantzukizuna onartzea ere. Neurri horiek beren baitan har ditzakete, halaber, produktua zenbateraino berrerabili eta birzikla daitekeen jakitera ematen duen informazioa herritarren esku jartzeko betebeharra.

2. Estatu kideek neurriak ezarri ahal izango dituzte ekoizleek, produktuaren diseinu-fasean, honako hauek kontuan har ditzaten: ingurumenarekiko ondorioak murriztea, produkzio-fasean hondakin gutxiago sortzea eta produktu horiek erabili ondoren hondakin gutxiago sorraraztea; horrezaz gain, hondakin bihurtu diren produktuak 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera balorizatu eta ezabatuko dituztela bermatzeko ere ezarri ahal izango dituzte.

Neurri horien bidez, besteak beste, sustatu ahal izango dute erabilera anitz izango dituzten eta teknikoki denbora luze iraungo duten produktuak egitea, ekoiztea eta merkaturatzea eta, hondakin bihurtu ondoren, balorizazio egokia eta arriskurik gabea egitea eta ingurumenarekiko bateragarria den moduan ezabatzea.

3. Ekoizlearen erantzukizun erantsia aplikatzen denean, estatu kideek kontuan izango dituzte bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, ingurumenari eta giza osasunari eragiten zaizkion ondorioak eta eragin sozialak eta, horrezaz gain, barne-merkatuak behar bezala funtziona dezan bermatzeko beharra errespetatuko dute.

4. Ekoizlearen erantzukizun erantsia aplikatzeaz gain, kontuan hartuko dira 15. artikuluko 1. paragrafoan hondakinak kudeatzearekiko erantzukizunari buruz xedatutakoa, eta hondakin espezifikoen eta produktu espezifikoen fluxuei buruz indarrean dagoen legedia.

##### 9. artikulua

#### **Hondakinen prebentzioa**

Alderdi interesatuei aurrez kontsulta egin ondoren, jarraian aipatuko diren txostenak aurkeztuko dizkio Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari; horiekin batera, egoki irizten badio, hondakinak prebenitzeko jarduerak sustatzeko eta prebentzio-programak aplikatzea sustatzeko beharrezkoak diren neurri-proposamenak ere egingo ditu (29. artikuluan xedatutako programak):

a) 2011. urtearen amaieran, hondakin-sorreraren eta hondakinen prebentzioaren zenbatekoaren bilakaerari buruzko behin-behineko txostena; bertan, produktuen diseinu ekologikorako politika bat zehaztuko dute, hondakinen sorrerari zein produktu horietako substantzia arriskutsuei aurre egiteko eta, hala, produktu iraunkorrak, berriz erabiltzeko modukoak eta birziklagarriak ekoiztera zuzendutako teknologiak bultzatu ahal izateko;

b) 2011. urtearen amaieran, batik bat egungo kontsumo-ereduak aldatze aldera, Europan beste neurri batzuk bultzatzeko ekintza-plana jasoko duen txostena.

c) 2014. urtearen amaieran, hondakinen prebentzioaren inguruko helburuak jasotzen dituen txostena; eta 2020. urterako hondakinak bereiztearen inguruko helburuak jasotzen dituen; teknika eskuragarri onenak hartuko dira oinarri, eta beharrezkoa izanez gero, 29. artikuluan 4. paragrafoan xedatutako adierazleen berrikusketa.

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

*10. artikulua*

**Balorizazioa**

1. Estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte hondakin guztiekin balorizazio-lanak egiten direla bermatzeko, 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa betetzeko beharrezkoa bada eta balorizazioa errazteko eta hobe izateko, hondakinak gaika jasoko dira, baldin eta teknika, ingurumen eta ekonomiaren aldetik bideragarria bada, eta ez dira beste hondakin batzuekin edo propietate desberdinak dituzten beste material batzuekin nahastuko.

*11. artikulua*

**Berrerabilera eta birziklapena**

1. Estatu kideek egoki irizten dioten neurriak hartuko dituzte, produktuen berrerabilera sustatzeko eta berriz erabili ahal izateko prestaketa-jarduerak bultzatzeko; horrezaz gain, berrerabiltzeko eta konpontzeko sareak ezartzea eta bultzatzea sustatuko dute, bitarteko ekonomikoak erabiltzea sustatuko dute, eta eskaintzarako baldintzak, helburu kuantitatiboak eta beste neurri batzuk ezartzea sustatuko dute.

Estatu kideek neurriak hartuko dituzte kalitate handiko birziklapena sustatzeko; horretarako, hondakinak gaika bilduko dituzte — baldin teknika, ekonomia eta ingurumenaren aldetik bideragarria eta egoki irizten bada—, eta, horrela, birziklatze-sektore bakoitzari dagozkion nahitaezko kalitate-irizpideak beteko dira.

10. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoa aintzat hartuta, 2015. urterako gaika bilduko dira, gutxienez, materia hauek: papera, metalak, plastikoa eta beira.

2. Zuzentarau honetan ezarritako helburuak betetze aldera eta Europan gizarte birziklatzailea lortzeko bidean aurrera egite aldera —baliabideen eraginkortasun-maila handia lortzen dela—, estatu kideek behar adina neurri ezarriko dituzte, helburu hauek beteko direla bermatzeko:

a) 2020. urtea baino lehen, hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatze-lanaren zenbateko guztiak, gutxienez, %50 egin behar du gora. Hondakin horiek, besteak beste, hauek dira: etxeetan sortzen den papera, metalak, plastikoa eta beira, baita beste toki batzuetan sortutakoak ere, baldin eta hondakin-fluxu horiek eta etxeetako hondakin-fluxuak antzekoak badira;

b) 2020. urtea baino lehen, materialak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta bestelako balorizazio-jardueretarako prestatze-lanak, gutxienez, %70 egin behar du gora; betelanak egiteko bestelako materialak erabili ordez hondakinak erabiltzeko lanak barne — esate baterako, eraikuntzan eta eraispenetan sortzen diren hondakin ez-arriskutsuak—; berez sortzen den materiala izan ezik, hondakin-zerrendako 17 05 04 kategorian adierazitakoak.

3. Batzordeak arau zehatzak ezarriko ditu kalkulu-metodoei eta aplikazioari buruz; hala, horien bitartez, artikulua honen 2. paragrafoan ezarritako helburuak betetzen direla egiaztatzeko, kontuan hartzen dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2150/2002/EE Erregelamendua, 2002ko azaroaren 25ekoa, hondakinen inguruko estatistikei buruzkoa <sup>(1)</sup>. Bigarren paragrafoan adierazitako hondakin-kategoria bakoitzean, 2008. urtean %5 baino gutxiago birziklatzen duten estatu kideentzat trantsizio-epaiek kontuan hartu ahal izango dituzte arau horiek. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek, halaber, Zuzentarau honen 39. artikulua 2. paragrafoan agindutako kontrol-dun prozeduraren arabera hartu behar dira.

4. Beranduen jota, 2014ko abenduaren 31rako, Batzordeak 2. paragrafoan xedatutako neurriak eta helburuak aztertuko ditu, behar izanez gero, helburuei bultzada emateko eta beste hondakin-fluxu batzuetarako helburu gehiago jarri behar diren aztertzeko. Horri buruzko txostena Europako Parlamentura eta Kontseilura bidaliko du Batzordeak eta, beharrezkoa irizten badio, proposamen bat

---

(1) L 332 EO, 2002.12.9koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ere bai. Batzordeak, txosten horretan, helburu horiek ezartzeak ingurumenean, ekonomian eta gizartean eragingo dituen ondorioak kontuak hartuko ditu.

5. Hiru urtean behin, 37. artikuluan ezarritakoari jarraiki, helburuak lortzearen inguruan zein egoeratan dauden jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari. Helburuak betetzen ez badira ari, horren arrazoia zein den adierazi behar du estatu horrek, bai eta helburuak lortu ahal izateko zein neurri ezartzeko asmoa duen ere.

### *12. artikulua*

#### **Ezabaketa**

10. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera ez bada balorazizazio-lanen bat gauzatu behar, estatu kideek bermatu egin behar dute hondakin-eko ezabaketa-jarduera guztiak seguruak direla eta 13. artikuluko xedapenak betetzen direla, giza osasunaren eta ingurumenaren babesari buruzkoak.

### *13. artikulua*

#### **Giza osasunaren eta ingurumenaren babesa**

Estatu kideek beharrezko neurriak ezarriko dituzte bermatzeko giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalterik egin gabe kudeatuko direla hondakinak. Eta, bereziki, hau bermatuko dute:

- a) urari, aireari, lurrazalari, faunari eta florari ez zaiola arriskurik eragiten;
- b) zarata eta usain deserosorik ez dela eragiten; eta
- c) interes berezia duten paisaiak eta tokiak ez direla arriskuan jartzen.

### *14. artikulua*

#### **Kostuak**

1. Kutsatzen duenak ordaintzen du printzipioaren arabera, hondakin-kudeaketak eragindako gastuak honako hauek ordaindu beharko dituzte: lehendabizikoz hondakinak sortu dituenak, uneko edukitzaileak edo aurreko edukitzaileak.

2. Estatu kideek erabaki ahal izango dute hondakin-kudeaketak eragindako kostua oso-osorik edo zati bat ordainduko duen hondakinak sorrarazi dituen produktuaren ekoizleak edota produktu horren banatzaileak ere parte hartuko duten kostua ordaintzen.

## **III. KAPITULUA**

### **HONDAKIN-KUDEAKETA**

#### *15. artikulua*

#### **Hondakin-kudeaketaren erantzukizuna**

1. Estatu kideek nahitaezko neurriak ezarriko dituzte bermatzeko lehendabiziko hondakin-ekoizleak edo beste edukitzaile batek hondakin-tratamendua bere kabuz egingo duela edo hondakinen tratamendu-jarduerak egiten dituen negoziatzaile, erakunde edo enpresaren bati hala egiteko aginduko diola, edo hondakin-biltzaile publiko edo pribatu bati tratamenduaz arduratzeko aginduko diola, 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Hondakinak lehendabiziko ekoizletik 1. paragrafoan adierazitako pertsona fisiko edo juridikoren batengana transferitzen badira lehen tratamendurako, ez da, arau orokor gisa, erantzukizunetik salbuetsiko; hau da, balorizazio- edo ezabaketa-jarduera osoa egitetik salbuetsiko.

1013/2006/EE Erregelamenduan adierazitakoa gorabehera, estatu kideek erantzukizun-baldintzak zehaztu ahal izango dituzte eta erabaki ahal izango dute, halaber, zein kasutan den lehendabiziko hondakin-ekoizlearen erantzukizuna tratamendu-katea osorik edo zein kasutan erantzukizuna banatu edo besterendu behar den tratamendu-katean parte hartzen dutenen artean.

3. Estatu kideek erabaki ahal izango dute, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hondakin-kudeaketa antolatzea noren erantzukizuna den: hondakinak sorrarazi dituen produktuaren ekoizlearena den oso-osorik edo zati bat baino ez, eta produktu horren banatzaileek ere parte hartuko duten erantzukizun horretan.

4. Estatu kideek nahitaezko neurriak ezarriko dituzte bermatzeko bakoitzaren lurraldearen barruan hondakinak biltzen eta garraiatzen aritzen diren profesionalak bildutako eta garraiatutako hondakin horiek tratamendurako instalazio egokietan uzten dituztela, 13. artikuluan ezarritako xedapenei jarraiki.

### *16. artikulua*

#### **Autosufizientzia eta hurbiltasun printzipioak**

1. Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte, gainerako estatu kideekin lankidetzan arituta beharrezkoa edo gomendagarria denean, etxebizitza pribatuetatik jasotako hondakinak ezabatzeko eta hiri-hondakin nahasiak balorizatzeko instalazio-sare integratua eta behar bezalakoa ezartzeko, bai eta hondakin-bilketa horren bidez beste ekoizle batzuek sorrarazitako hondakinak biltzen badira; horretarako, teknika eskuragarri onenak hartu behar dira kontuan.

1013/2006 Erregelamenduan xedatutakoa gorabehera, estatu kideek, sarea bultzatze aldera, balorizatzeko modukotzat sailkatutako eta erraustegietara bideratutako hondakinen lekualdatzea mugatzeko baimena izango dute, lekualdatze horiek estatuko hondakinak ezabatzea eragingo luketela erabakitzen badute, edo hondakin horiek hondakinak kudeatzeko dituzten planekiko bateragarri ez den moduan tratatu behar direla erabakitzen badute. Estatu kideek erabaki hori jakinaraziko diote Batzordeari. Estatu kideek baimena izango dute, halaber, hondakinen lekualdatzea mugatzeko 1013/2006 Erregelamenduan adierazitako ingurumen-arrazoiengatik.

2. Sare horren xedea hau da: Erkidegoa, osotasunean, hondakinak kudeatzen eta 1. paragrafoan aipatutako hondakinak balorizatzen burujabe izaten laguntzea, eta norbere kabuz bide horretan aurrera egin dezaten estatu kideei laguntzea; horretarako, kontuan hartu behar dira ezaugarri geografikoak eta hondakin-motaren araberako instalazio espezializatuak edukitzea.

3. Sare horrek bultzatu egin behar du 1. paragrafoan adierazitako hondakin horiek ahalik eta hurbilen dauden instalazio egokietan ezabatzea eta balorizatzea; horretarako, teknologia eta metodo egokienak erabiliko dira, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes-maila handia lortzeko.

4. Hurbiltasun eta autosufizientzia printzipioek ez dute zertan eragin estatu kideek beren lurraldean azken balorizatorako instalazio guztiak eduki beharra.

### *17. artikulua*

#### **Hondakin arriskutsuen kontrola**

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko hondakin arriskutsuen sorrera, bilketa- eta garraio-lanak, bai eta hondakin horien biltegiatzea eta tratamendua ere, ingurumena eta giza osasuna babestuta gauzatzen direla; izan ere, 13. artikuluko xedapenak betetzea da helburua. Horrez gain, sortzen direnetik azken helburura bitarteko trazabilitatea bermatzeko eta hondakin arriskutsuak kontrolatzeko neurriak ezarriko dituzte, 35. eta 36. artikuluetan ezarritako baldintzak betetze aldera.

### *18. artikulua*

#### **Hondakin arriskutsuak nahasteko debekua**

1. Estatu kideek beharrezko neurriak ezarriko dituzte bermatzeko hondakin arriskutsuak ez direla beste hondakin arriskutsuen kategoriekin nahasiko, ez eta bestelako hondakin, substantzia edo materialekin ere. Nahasketak barne hartzen du substantzia arriskutsuen diluzioa.

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, estatu kideek zenbait nahasketa egitea baimendu ahalko dute; honako hauek kontuan hartzen direla, betiere:

- a) nahasketa egin duen erakunde edo enpresak horretarako baimena duela, 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki;
- b) 13. artikuluan adierazitako xedapenak betetzen direla, eta hondakinak kudeatzeak giza osasunean eta ingurumenean eragiten dituen ondorio negatiboan kopuruak ez duela gora egiten; eta
- c) nahasketa teknika eskuragarri onenei jarraiki egiten dela.

3. Bideragarritasun ekonomiko eta teknikoan alorreko irizpideei atxikiz, 1. paragrafoan xedatuta ez bezala nahasten badira hondakin arriskutsuak, ahal denean eta beharrezkoa denean, bereizi egingo dira horiek, 13. artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

### *19. artikulua*

#### **Hondakin arriskutsuen etiketatzea**

1. Estatu kideek beharrezko neurriak ezarriko dituzte bermatzeko nazioarteko arauak eta Erkidegoan indarrean dauden arauak jarraiki ontziratzen eta etiketatzen direla hondakinak, horiek biltzen, garraiatzen eta aldi baterako pilatzen direnean.

2. Hondakin arriskutsuren bat estatu kidearen barrualdean lekualdatzen den guztietan, identifikazio-dokumentu bat eraman behar du aldean, 1013/2006/EE Erregelamenduan, IB eranskinean zehazten diren datuak adierazten direla bertan; formatu elektronikoan aurkeztu ahal izango dira datuak.

### *20. artikulua*

#### **Etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak**

17., 18., 19. eta 35. artikulua ez zaizkie aplikatuko etxeetan sortutako hondakin nahastuei.

19. eta 35. artikulua ez zaizkie aplikatuko etxeetan sortu eta gaika berezita dauden hondakin arriskutsuei, establezimendu edo enpresa batek horiek biltzea, ezabatzea edo balorizatzea onartzen ez duen arte; establezimendu edo enpresa horiek, halaber, horretarako baimena izan behar dute edo erregistratuta egon behar dute, 23. edo 26. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

### *21. artikulua*

#### **Erabilitako olioak**

1. 18. eta 19. artikuluetan hondakin arriskutsuak kudeatzeri buruz ezarritako betebeharrak gorabehera, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte, honako hauek bermatzeko:

- a) erabilitako olioak gainerako hondakinetatik berezita bilduko direla, teknikoki bideragarria baldin bada betiere.
- b) erabilitako olioaren tratamendua 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraiki egingo dela.
- c) teknikoki eta ekonomikoki bideragarria eta posible denean, ez direla nahastuko ezaugarri desberdinak dituzten erabilitako olioak, ez eta beste mota bateko hondakin edo substantziekin ere, nahasketa horrek olioaren tratamendua eragozten badu.

2. Erabilitako olioak gainerako hondakinetatik berezita biltzeko eta horien tratamendua behar bezalakoa izan dadin, estatu kideek, nork bere estatuko baldintzei jarraiki, beste arau osagarri batzuk aplikatu ahal izango dituzte; esate baterako: baldintza teknikoak, erantzukizun-arauak ekoizlearentzat, bitarteko ekonomikoak eta hitzarmen boluntarioak.

3. Erabilitako olioak balioztatzeko baldintzekin bat badatoz, norbere estatuko araudiari jarraiki, erabilitako olio horiek balioztatzeko betebeharra ezarri dezakete estatu kideek, teknikoki bideragarria baldin bada; horrezaz gain, 1013/2006/EE Erregelamenduaren 11. edo 12. artikulua aplikatzen direnean, erabilitako olioak norbere lurraldetik errausteko edo baterako errausketa egiteko instalazioetara eramateko mugaz haraindiko lekualdatzea muga dezakete estatu kideek, erabilitako olioak balioztatzeari lehentasuna eman diezaioten.

### *22. artikulua*

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)



### **Biohondakinak**

Estatu kideek neurriak ezarriko dituzte, modu egokian eta 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, honako hauek sustatzeko:

- a) biohondakinak gaika bildu daitezzen, konposta egin eta digeritzeko;
- b) biohondakinak tratatu ditzaten, ingurumenaren babes-maila handia lortzeko;
- c) biohondakinak oinarri hartuta ekoiztu eta ingurumenaren aldetik ziurrak diren materialak erabil ditzaten.

Batzordeak biohondakinaren kudeaketari buruzko ebaluazioa egingo du, egoki irizten badio, proposamen bat egiteko. Ebaluazio horren bidez, biohondakinak kudeatzeko gutxieneko baldintzak ezartzea eta konpostaren kalitate-irizpideak eta biohondakinak digeritzeko kalitate-irizpideak ezartzea egoki den aztertuko dute, giza osasunaren eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzeko.

## **IV. KAPITULUA**

### **BAIMENAK ETA ERREGISTROAK**

#### *23. artikulua*

#### **Baimenak ematea**

1. Estatu kideek hondakinaren tratamendua egingo duten erakunde edo enpresa guztiei eskatuko diete agintari eskudunen baimena edukitzea.

Baimen horietan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

- a) tratatu daitezkeen hondakin-motak eta -kopuruak;
- b) baimendutako jarduera bakoitzeko, kasuan kasuko lekuari buruzko baldintza teknikoak eta aplikatu beharreko beste baldintza-mota guztiak;
- c) hartu beharreko segurtasun- eta arreta-neurriak;
- d) jarduera-mota bakoitzean erabiliko den metodoa;
- e) beharrezkoak izan daitezkeen gainbegiratze- eta kontrol-jarduerak;
- f) itxierari eta ondorengo mantentze-lanari buruzko xedapenak, beharrezkoak izan daitezkeenak.

2. Baimenak denboraldi jakin baterako eman daitezke eta horiek berritu ahal izango dira.

3. Agintari eskudunak erabakitzen badu aurreikusitako tratamendu-metodoa ez dela onargarria ingurumen-babesaren ikuspuntutik eta, bereziki, 13. artikuluan xedatutakoaren bat ez badator, ukatu egingo du baimena.

4. Balorizazio energetikoko errausketa edo baterako errausketa guztiek baldintza hau bete behar dute: energia-balorizazioak eragin energetiko maila handikoa izan behar du.

5. Artikulu honetan ezarritako baldintzak errespetatuz gero, norbere estatuko edo Erkidegoko beste araudiren baten baitan eskuratutako baimen guztiak eta 1. paragrafoaren baitan eskuratutako baimen guztiak bateragarriak izan ahalko dira, baimen bakarra osatze aldera, baldin eta informazio berbera behin baino gehiagotan alferrik ez ematea eta langileak edo eskudun agintariak lan berbera behin baino gehiagotan alferrik ez egitea eragiten badu.

#### *24. artikulua*

#### **Baimen-baldintzen salbuespenak**

Estatu kideek 23. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzetik salbuetsi ditzake zenbait erakunde edo enpresa, jarduera hauek egiten badituzte:

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) ekoizpen-lekuan bertan ezabatzen badituzte norberaren hondakin ez-arriskutsuak, edo
- b) hondakinak balorizatzen badituzte.

### *25. artikulua*

#### **Salbuespenak emateko baldintzak**

1. Estatu kideren batek 24. artikuluan adierazitako salbuespenak eman nahi izanez gero, jarduera-mota bakoitzaren inguruan honako hauek ezarriko ditu: salbuespena zer hondakin-motari eta -kopururi aplikatzekoa den zehazteko arau orokorrak eta erabili beharreko tratamendu-metodoak.

Arau horiek egiterakoan, kontuan hartuko dute bermatu egin behar dela hondakin-tratamendua 13. artikuluan xedatutakori jarraiki egiten dela. 24. artikuluko a) idatz-zatian adierazitako ezabatze-jardueren kasuan, arau horiek teknika eskuragarri onenak hartuko dituzte kontuan.

2. 1. paragrafoan xedatutako arau orokorrez gain, estatu kideek baldintza espezifikoak ezarriko dituzte salbuespenak aplikatzeko hondakin arriskutsuei, jarduera-motak barne; horrezaz gain, balorizazio-moduen arabera nahitaezko baldintzak ezarriko dituzte eta, egoki irizten dutenean, hondakinek izan beharreko substantzia arriskutsuen muga-balioak eta emisioen muga-balioak.

3. Estatu kideek 1. eta 2. paragrafoan adierazitakoari jarraiki ezarritako arau orokorrak jakinaraziko dizkiote Batzordeari.

### *26. artikulua*

#### **Erregistroa**

Jarraian aipatuko ditugun erakundeak edo enpresak eta negoziatzaileak edo agenteak baimen-baldintzak betetzetik salbuetsita badaude, estatu kideek bermatu egingo dute eskudun agintariak, hauen erregistroa egingo dutela:

- a) hondakinak modu profesionalean biltzen edo garraiatzen dituzten erakunde edo enpresen erregistroa
- b) negoziatzaile edo agenteen erregistroa;
- c) 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baimen-baldintzak betetzetik salbuetsita dauden erakunde eta enpresena.

Ahal den guztietan, agintari eskudunak dituen datuak erregistro-prozedurarako nahitaezkoa den informazioa eskuratzeko erabiliko dira, administrazio-zamak murrizte aldera.

### *27. artikulua*

#### **Gutxieneko arauak**

1. Gutxieneko arau teknikoak ezarri ahalko dira 23. artikuluan ezarritakoaren arabera baimena behar duten tratamendu-jardueretako, baldin eta egiaztatzen bada gutxieneko arau horien bidez giza osasunaren eta ingurumenaren babesaren inguruan onurak lortuko direla. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz) 39. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

2. Gutxieneko arau horiek, bakar-bakarrik, 96/61/EE Zuzentarauak bere baitan hartzen ez dituen hondakinen tratamendu-jarduerak arautzeko edo Zuzentarau horrek bere baitan hartzeko modukoak ez diren tratamendu-jarduerak arautzeko izango dira.

3. Gutxieneko arau horiek:

- a) hondakin-tratamenduak eragindako ingurumen-ondorio nagusiak hartuko dituzte kontuan,
- b) bermatu egingo dute 13. artikuluan ezarritakoari jarraiki tratatuko direla hondakinak,
- c) kontuan hartuko dituzte teknika eskuragarri onenak,

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) bere baitan hartuko dituzte, modurik egokienean, tratamenduaren kalitateari buruzko elementuak eta prozesuei buruzko baldintzak.

4. Gutxieneko arau teknikoak ezarriko dira 26. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan ezarritakoaren arabera baimena behar duten tratamendu-jardueretarako, baldin eta egiaztatzen bada gutxieneko arau horien bidez giza osasunaren eta ingurumenaren babesaren inguruan onurak lortuko direla edo barne-merkatuko nahasmenak eragotziko direla; horrezaz gain, biltzaile, garraiolari, negoziatzaile eta bitartekariak izan beharreko kualifikazio-teknikoei buruzko elementuak ere hartuko dituzte beren baitan.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz) 39. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

### V. KAPITULUA

#### PLANAK ETA PROGRAMAK

##### 28. artikulua

#### Hondakinak kudeatzeko planak

1. Estatu kideek bermatu egingo dute estatuetako agintari eskudunek hondakinak kudeatzeko plan bat edo batzuk ezarriko dituztela, 1., 4., 13. eta 16. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

Plan horiek, banaka zein elkartuta, estatu kidearen eremu geografikoa oso-osorik hartuko dute.

2. Hondakinak kudeatzeko plan horiek, eremu geografikoa kontuan hartzen dutela, honako hauek hartuko dituzte beren baitan: hondakin-kudeaketaren egoerari buruzko azterketa eguneratua; ingurumena kontuan hartuta, hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko, balorizatzeko eta ezabatzeko prestatze-lana hobea izan dadin hartu beharreko neurriak; horrezaz gain, planak Zuzentarau honetan ezarritako helburuak lortzen zenbateraino laguntzen duen ebaluatuko du.

3. Plan horiek, gutxienez, elementu hauek hartuko dituzte beren baitan, ahalik eta modurik egokienean eta kontuan hartzen dituztela geografia-eremua eta planifikazioaren aplikazio-eremua:

a) lurraldearen barruan sortutako hondakin-mota, -kopurua eta -iturria; Estatutik eta Estatura garraiatuko direla aurreikusten diren hondakinak; eta hondakin-fluxuen geroko bilakaeraren ebaluazioa;

b) hondakinak biltzeko erabiltzen dituzten sistemak eta hondakinak ezabatzeko eta balorizatzeko dituzten instalazio nagusiak, erabilitako olioien, hondakin arriskutsuen edo Erkidegoan berariaz arautu beharreko hondakin-fluxuen inguruko neurri bereziak barne;

c) biltzeko sistema berrien beharrari buruzko ebaluazioa; hondakinentzako instalazioen itxiera; hondakinentzako instalazio osagarrien azpiegiturak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira eta, beharrezkotzat hartuz gero, horiei dagozkien inbertsioak;

d) ezabatzeko instalazioak eta balorizatzeko instalazio nagusiak non kokatu identifikatzeko kokapen-irizpideei buruzko nahikoa informazio, bai eta gerora jarriko diren instalazioen gaitasunari buruzkoa ere, eta balorizatzeko instalazio nagusiei buruzkoa, beharrezkoa izanez gero;

e) hondakinak kudeatzeko politika orokorrak, aurreikusitako hondakinak kudeatzeko teknologiak eta metodoak barne, edota digeritzeko arazo espezifikoei eragiten dituzten hondakinei buruzko politikak;

4. Plan horiek elementu hauek ere beren baitan hartu ahal izango dituzte, geografia-eremua eta planifikazioaren aplikazio-eremua kontuan hartuta:

a) hondakinak kudeatzearekin zerikusia duten antolakuntza-elementuak, hondakinak kudeatzeaz arduratzen diren langile publikoen eta pribatuen arteko erantzukizun-banaketari buruzko deskripzioa barne;

b) hondakinen inguruko arazoei aurre egiteko bitarteko ekonomikoak eta bestelako bitartekoak erabiltzearen baliagarritasunari eta komenigarritasunari buruzko ebaluazioa, barne-merkatuak behar bezala funtzionatzea beharrezkoa dela kontuan hartuta;

c) herritarrak oro har edo kontsumitzaile-talde jakin bat sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpainak;

2008/98/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 312/3, 2008/11/22koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) hondakinak ezabatzeko historikoki kutsatuko tokiak eta horiek lehenera ekartzeko neurriak.

5. Hondakinak kudeatzeko planak egokitu egingo dira 94/62/EE Zuzentarauaren 14. artikuluan xedatutako baldintzetara, eta zabortegietarako hondakin biodegradagarriak murrizteko estrategian ezarritakora, 1999/31/EE Zuzentarauaren 5. artikuluan adierazitakora.

### *29. artikulua*

#### **Hondakinak prebenitzeko programak**

1. Estatu kideek 2013. urteko abenduaren 13a baino lehen, 1. eta 4. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, hondakinak prebenitzeko programak egingo dituzte.

Programa horiek 28. artikuluan xedatutako hondakinak kudeatzeko planetan integratuko dira edo ingurumen-politikari buruzko beste programa batzuetan, egokitzen hartzen denaren arabera, edo, bestela, bereizita dauden programatzat hartuko dira. Programa horietakoren bat hondakinak kudeatzeko planetan edo beste programa batzuetan integratuta badago, hondakinak prebenitzeko neurriak argi eta garbi nabarmendu behar dira.

